

Sindikatuak Euskal Herrian (1)

Deia, 1983-09-09.

Industriagintzarekin batera sortzen da XIXgo mendearen azken aldera langilegoaren Sindikatua.

Bigarren gerra karlista amaitu ondoren abiatzen da kontrolik gabeko hezkundea Bizkaiko meatzetan eta industria handietan: 1875-1880 bitartean, bost urtean, langileria hiru aldiz gehitzen da; kanpotik eta bat batean datozen jende horien hizkuntzan geratu da fenomeno arau lekukotasun gisa: Solozabalek *obrerismo* deitzen dio; Beltzak, *proletariado*, eta Extramianak, *clase obrera*.

Langileriaren pilaketa, batetik, eta lanak eta irabaziak sorrarazten dituenak bestetik, politika eta sindikatu bideak laster dira gure herriko gorputz kulturalen eta politikoen sartuta, arrotzak diren problemaz kargaturik.

Eta arrotzak izango dira soluzioak.

Facundo Perezagua, Toledon jaioa (1860) dator Madriletik lehen, 1885an, Pablo Igleziasek Bizkaian talde sozialista eratzera bidalia; Pablo Igleziasek (Ferrolen jaioa, 1850). Madrilen eratua zuen dagoeneko 1879 lehen *Partido Socialista Obrero*, eta 1886an sortu *El Socialista* aldizkaria, pertsonalki Bilbora 1887an etorri aurretik: urte honetan eratu zen hemen siderurgiako greba *hamar orduko ihardunaldia* eskatzen.

Kanpotik etorri da langileri gehiena, kanpotik lehenengo sindikatua gure herrian eratzera; izango du honek gure herriagan ondoren.

Urtebete barru egiten da etxegintzako lanuztea (200 langile ausartzen dira) eta lehenengo aldiz irabazten dute (1888); lehenengo *lanuzte* edo *greba orokorra* 1890go maiatzean eratzten da. 20.000 langiletik gora uzten dute lana; 1890-1903 bitartean honelako hiru lanuzte eratzten dira metalurgian, hamasei lanuzte partzial, zazpi garaipenekin; gainontzeko langintza-sailetan, 32 ekintza.

Langilegoa indartzen ari da, eta 1903an (Sabin Arana hiltzen den urtea) greba orokor handia eratzten da.

Sabin Aranak sortutako herri-kontzientzia eta Alderdi Politikoa (EAJ/PNV) izango dira, neketsu, baina eten gabeko borrokan, fenomeno arrotz honeri erantzun herrikoia emango diotena. Lehendabizi S.O.V. (*Solidaridad de Trabajadores Vascos*) eratzten da, eta gero, euskarazko izenak berak, zerbait erantsi dio: *Eusko Langile Alkartasuna / Solidaridad de Trabajadores Vascos* (ELA/STV).

Baina oraingoz aipa ditzagun gurean ez diren garai hartako zifra batzu: 1893an, UGTek Bilbon zortzi langintza-sailetan 280 bazkide ditu apuntatuak; Sestaon, 211 bazkide hiru langintza-sailetan. Hurrengo urtean, 1894an, sortzen da *La Lucha de Clases* aldizkaria, XXgo gizaldiaren hasieran, *Partido Socialista*-ren aldizkariarik handiena, *El Socialista*, bera baino gehiago zabaltzen zena: 1.000 alerekin hasi zen, urtebete barru 4.000, eta 1898an 10.000 botatzen ziren.

Nolatan erantzun zion egoera honi gure herriak?